

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

239n. zenbakia  
jorria-aprila 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## **BAKIO'KO ANDRA MARI**

- EUSKALDUNEN ARTEAN
- ELEIZA ONDO BARRIZTATUAN
- EUSKALDUNEN ZAINDARI

---

# EUSKALERRIA

---

Pake bidera sarturik gagoz gure Euskalerrri zail ontan. Baiñan badira pakerako bide ortan, ezin ulertu dodazalako, arri-turik naukaten gauzak.

Izan ere... gauza xelebreak gertatzen dira, bi zati egiñik dagoan gure Euskalerrri gaixo onetan.

Ni ez naiatzue gaur ez zati batekoen ez bestekoen alde azalduko; ez bait dot sutegira egur geiagorik jaurti nai.

Soilki, gertatzen diran gauzak agertu nai dodaz: gertatzen dana, gertatzen bait da, guk nai edo guk nai ez. Eta gertatzen danari bizkarra emonez, pakerako bidean zuzen ibiltzerik ez bait dago!

Emen gaur, mundu guztiak bere burua demokrata agertu gura dau. Demokrati batean, ordea, edonork badau bere pen-tsabideak agertzeko eskubidea. Bañan alde bateko demokra-

beiño. Aiek, Batzar ortara joan ba'lira, jaun-da-jaba-ta-nagu-si izango ziran batzarrean.

Zergaitik ez dira joan?

Ez dot ulertzen.

-Arrigarria gauza!: Nazionalista ezpañiarrak Batzar ortara joan balira, nazionalista euskotarrak aien ankapean geldituko ziran. Ba... auek, naiz aien ankapean geldituko zirala jakin, aiek joatea nai eben; aiek ordea, naiz auek ankapean artuko ebezala jakin, ez dabe joan nai izan.

Ez dot ulertzen.

-Guri atsegiña izan edo guri atsegiña izan ez, eusko-nazio-nalismoa nagusi da Gazteiz'ko Jaurlaritzaren lurretan; eta azi-tzen doa.

Bañan oraindik gure 4 probintziotan nazionalista espaiña-

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

tek zerbait esan edo zerbait egiten ba'dabe, berealaxe beste aldeko demokratek -eta ontan maixu dira espaiñizaleek- zakur amorratuak bezala asiko yakoz zaunka-ta-zaunka, agin erio-garriak erakutsiz.

Ez dot ulertzen.

-Adibidez, oraintxe bertan, alde bateko demokratek, Eus-kalerrriko Udalen Batzar bat Iruña'n egin-berriak dira. Orrela-ko batzarrak egiteko eta batzar oietan Alkarte berriak sortze-ko eskubidea, gizakume guztiak dabe demokrati batean. Ala-re, i gozoak jarri dira beste aldeko demokratek Iruña'ko batzarkideen aurka, batzar ori bildu dabelako eta batzar ortan Alkarte berri bat sortu nai izan dabelako.

Ez dot ulertzen.

Iruña'n egin dan Batzar ori, batzar irikia zan. Euskalerrri-ko Udal guztiak eben Batzar ortara joateko eskubide beta. Eta, ona, orain, emen, ezin ulertu dodana:

Euskalerrria, nazionalismo-erria da: nazionalismo espaiña-rra alde batetik, nazionalismo euskotarra bestetik. Ego-Eus-kalerrri osoan, ots, gure 4 probintzietan, espaiñar nazionalistak diran Udalak askoz geiago dira eusko-nazionalistak diranak

rrak askoz geiago dira nazionalista euskotarrak baiño; "mayo-ria absoluta", ots, i "geiengo orokorra" bait dira! !

Ta, ona, orain, berriro, ezin ulertu dutan beste gauza bat:

Emengo lau probintziek, bat egiñik, Jaurlaritza baten men-dean, Lurralde Autonomiko bat bakarra osatuko ba'lebe, auteskunde guztietan geiengo aundiz espaiñizaleek irabaziko leuke, eta auen eskuetan -eta auen eskuetan bakarrik!- egon-go litzake Ego-Euzkadi osotu ortako Jaurlaritza.

Alatagutziz, Jaurlaritza ortatik kanpo geldituko litzakez eus-ko-nazionalistek... Jaurlaritza bat ori nai dabe!, ta... Jaurlaritza ortan guztia berena izango lukeen nacionalista espaiñizaleek, beriz... ez dabe Jaurlaritza orren izenik ere entzun nai!!!

Ez dot ulertzen.

Alare, "nihil sine ratione sufficienti", "ezer ez kideko arro-zoirik gabe" esaten bait dabe filosofilariak, egondo da arra-zoiren bat jardunkera ulerkaitz orren azpian ere.

Arrazoi ori, zuk, irakurle, ezagutzen ote dozu?

LATIEGI'TAR BIXENTE

(1) Euskeraren egiazko BATASUN bakarria euskaldun bakoitzak bere Euskera ondo ezagutu eta beste euskerak erre-z ulertzeko gai izatea dalarik, nik, "ZER" aldizkari ontan beti bezala, Erdiko Euskeraz, (Gipuzko-Naparro-Laburdi'ko Euskeraz) idatziko dot. Sarkaldeko (gau-regun Bizkai, Aramaiona eta Deba-ibarreko) Euskeraren aditza erabilliz, bizkaitarrak gipuzkerara eta giputzak bizkaierara jarri daite-zan. Ez legoke gaizki bizkaitar batek Gipuzkeraren aditza erabilliz Bizkaieraz idatziko ba'leu, orrela Aldizkari ontan Euskerak BERE A daun batasun BAKARRA lantzen asteko txoko bat eratuz.

---

# BIZKAIKO ELEIZAN BAKEAREN ALDEKO KANPAINEA

---

Badakit ZER aldizkaria Bizkaiko abade mordoak irakurten dauana. Irakurri ez eze, batzuk egin eta zuzendu be egiten dabe ileroko au. Idazki onen mamina baleiteke Bizkaiko Eleizearen gogoko ez izatea, baina Bizkaiko kristinau euskaldun lez ez dot gura izan kanpaina orren ganean oker ikusi dodana eta Eleizeak aitatu barik (edo autortu barik) lotu dana esan barik itzi.

Bateko. Gure errian, erri euskaldunean, Bizkaiko Eleizeak indarrean iminitako kanpaina dala esan euskuen. Kanpaina ori aurrera eroaten lagunduteko otoitz bat egiteko eskatu euskuen. Otoitz ori egiteko erderaz eta euskeraz dakarran papertxu bana emon euskuen. Euskerazkoan, baina, mendebaldeko euskerea (bizkaiera), gure izkuntza eredia, geurea, falta izan dogu. Orain artean, Bizkaiko Eleizeak orreri zelan edo alan eutsi izan deutso. Oraingoan ez, baina. Esan egingo jaku, bearbada, Euskalerri mailan egindako kanpaina dala, papertxu orreek irarteko erispide ekonomikoak kontuan euki bear izan dabezala, astirik eza,... Askotan, gauza batzuetarako, Bizkaiko Eleizeak eleiztarren aniztasuna akiakulatzat artu daroa, esaterako, euskera utsez egiten ziran mezak ezabatuteko. (Orain, leengo euskerazko mezetan erdere be entzun bear izaten dogu, eleiztarren aniztasuna dala kontu, aurki.) Or kristinau euskaldunok, euskaldunok, galduten. Beste gauza batzuetarako, ostera, norabide biko irazkina erabilten dabe. Aor, osterantzean, leen aitaturako otoitz-papertxuok. Gure artean banandutako otoitz-papertxu orreek dirala-eta, mendebaldeko euskaldunok barrian galduten. Kritikeari, baina, ekarpen baikorra egin gura deusot eta mendebaldeko euskeran agertuko dot otoitz dalako ori. Entzungorak entzungo aal dau!

## Jauna, egin nazazu bakegile!

Jainkoarekin adiskidetu gaituzun horrek  
bidal ugari gure artera  
zure Espiritu bizi-emailea,  
itsukeriak argitzen,  
loturak askatzen,  
minak arintzen,  
itxaropenak sendotzen  
eta bihotzak errukirako zabaltzen  
zintzo eta argi ibil gaitezen.

## Jauna, egin nazazu gaur eta beti bakegile!

Eskerrik asko, Jauna,  
gugan zaudelako  
eta zure biziaz bizi garelako.

## MIINEZ MINIK EZ

## Jauna, egin naizu bakegin!

Jainkoagaz adiskidetu gaituzun orrek,  
bialdu ugari gure artera  
zure Espiritu bizi-emoilea,  
itsukeriak argitzen,  
loturak askatzen,  
minak arintzen,  
itxaropenak sendotzen  
eta biotzak errukirako zabaltzen  
zintzo eta argi ibili gaitezan.

## Jauna, egin naizu gaur eta beti bakegin!

Eskerrik asko, Jauna,  
gugan zagozalako  
eta zure biziaz bizi garalako.

Besteko. Bizkaiko Eleizeak

Euskalerriko bake bidean zeozelango protagonismoa izan guran, bost aste kanpaina ori eratu dau. Ez deritxot txarto bakearen alde Eleizeak bere aalegintxua egiteari, ez. Ez eta antzik be. Bakeari lagunduteko artu diran erispide batzuk, barriz ez dodaz begi onez ikusi eta beste batzuen falta nabaritu dot. Terrorismoak eragindako kaltetuen ganean zein espetxeratu politikoen ganean ausnarketea egiteko aste bana izango dira. "Terrorismoaren kaltetuak" azalduten dabenean ETak sortutako kaltetuak bakarrik, ala baita beste batzuk (GAL, BVE, GCR, Espainako Estatua,...) sortutakoak be gogoratu eragin gura deuskuez? Andragizon espetxeratuen kasuan ETarenak bakarrik, ala Estatuarenak (orain kalean dagoz) be bai? Batzuk eta besteak ez dira bada, indarkeriearen kaltetuak? Manikeismoa emoten dau arek guztiarek, au da, onak eta txarrak nortzuk diran argi itzi gura izango balebe lez. Zergaitik, orduan, edozelango eta edonongo indarkeriearen ganean ausnarketarik ez egin, balizko manikeismoe-

tan sartu barik? Ez dira bada, dan-danak, terrorismoaren kaltetuak eta espetxeratuak, gatazka berberaren, arazo politiko sakon berberaren atalak? Zergaitik arazoaren gunera joan ez eta bakea jadesteko an dagoan troinua askatuteko bideen ganean ausnarketarik ez egin? Eta kaltetuei gagokezala, esan gura neuke, errion gizaldi onetan zear, Estatuaren indarkerieak mila eta mila kaltetu egon dirala eta gagozala. Gugaz, antza, inor ez da gomutetan. Ez eta Eleizea bera be. Erri onen izkuntza eta kulturea erasoak izan dira eten barik, ia guztiz laskitu artean. Guri, Erri euskaldunari, benetako ethnic-cleansing dalakoa egin deuskue. Erri onen errikideak erasoak, indarrez apalduak, euren buruak indarrez makurtutera beartuak izan dira, Erri onen eleizgizon asko barru. Eleizeak, entzun gura edo entzun gura ez, ekintza doilor orretan esku artu izan dau, askoren atsekabe eta minerako. Eta, nire eritxi apalean, ortik asi bearko leuke Eleizeak berak euskal Erri onenganako beraren obenak agirian ezagutu, damu izan eta parkamena eskatuten. Olakorik ez da jazo, oraindinokarren. Bake ausnarketarik ederrena izango litzake-eta norberaren errua danon aurrean autortutea, geroago, bakegintzan, gatazkearen beste atal batzuk egiatan eta zintzotasunez jorratu aal izateko. Eleizearen damutasunetik urtendako bitartekaritza bakegin zintzoan sinistu gura dot.

### UDALBATZ BARRIARI BEGIRA

Datorren bagilean aukeratuko dabe bakiotarrok udalbatz barria, au da, datozen lau urterako zinegotziak eta alkatea. Erritarren eskuetan dago, bada, aukerea.

Beste alde batetik, Bakion euskaldunek geiengo andia egiten dabe (ia %70). Geien-geienok euskereari leku eta bide andiak egitearen alde ei dagoz, errian egindako azkenengo azterketak erakusten dauanez.

Bakioko euskaldunek daben indar andi ori euskerearen alde egiteko bide onean imini bearko leukee. Bide ori bada, zalantza barik, norberaren eskuetan dagoan indarra: botoa euskerearen alde emotea. Bear-bearrezkoa da Bakio lako erri euskaldunean udalkideak (zinegotziak eta alkatea), dan-danak, euskaldunak izatea. Zertarako? Euskerearen alde orain arte egin dan aalegin andia, egin bear dana eta, azken baten, euskerea bera, bear dan lez, aurrera atara aal izateko. Udalkideetatik bat bakarrik erdalduna izatea

naikoa izango litzake, egindako aalegina laskitu eta galduteko. Eta ori ez, gero! Aurrera egin bear da eta ez atzera.

Ez da makala, gero, Udalerako erriko aukera politikoek euskereagaz dauken erantzukizuna. Erantzukizun ori bete aal izateko, Udalerako zerrendetan pertsona euskaldunak aurkeztu bear dabez. Leba andi-andikoa da ori. Bakioko aukera politikoen konpromiso sendoa bear dau euskereak. Euskerearen aldeko borondate politikoa argi eta garbi erakutsi bear dabe eurok. Ezin deuskue orretan utsik egin.

Iniaki MARTIARTU  
1999ko zezeilean

### LAUAXETA

Euskera zan zure itza  
odoletan tantaka  
oguzi zenduna;  
beroa ta sendoa  
biotzean zendukan  
bitxi bikaiñena.

Euskaldunen egia  
odol biurtu jatzun  
izate guztian;  
euzkotar gogo zarra  
laba goritan zeunkan  
urtuten bizian.

Martirien odola  
emon zeuntsan lurrari  
kristau argietan;  
Euzkadik maite zaitu  
ta Aitak onar zaizala  
zorion baketan.

PAULIN

---

## JULIO SANZ

### GURE LENDAKARI JAUNARI

---

(Oarra: Idazlantxo labur au Iruña'ko "Diario de Navarra'n izan da argitaratua, Otsail onen 9'an. Orregaitik dago Naparroa'ko eskeraz idatzia. Xabier'ko Frantzisko'k esango zuan lez, "en mi bizkaino de mi Navarra").

\* \* \*

Lendakari batekin erabili bearra den begirunez erantzun nai nioke, On Julio, zuk joandako abenduaren 3'an Elizondo'n esan zenuenari.

Ez zitzaizun mintzaldi ura txukunegia gertatu. Biotako bat: edo oso baldarki —¿bai?— edo asmo oso gaiztoz —¿bai ote?— izen bait zen aurkeztua an bota ziguzun erronka.

"Euskera" eta "indar geiagoko beste izkuntzak" aipatzerakoan au esan bait zenuen: Euskera erakusten geiegi saiatzea beste izkuntza indartsuago aien aurka joan ditekela; eta, orren ondorioa, "Naparroa'ko jendeen ortarako aal mena murriztea", "el empobrecimiento de las capacidades de aptitud de los navarros" izango dela. Ots, Pellokoko nere adiskideak esango luken bezela, "naparrok tontoago biurtzea".

Ez dakit, On Julio, ori den esan nai izen zenuena. Nik beintzat ez dut uste zure asmoa ori izen zenik. Baña ori izen da zure esaldi ura entzun edo irakurri duten guztiek —eta nik neronek aurreneko unean— ulertu duguna.

Nik ordea ezin pentsa dezaket euskerari gorroto diozunik. Naparra bait zera. Ta napar batek "naparren izkuntzari" gorroto izetea ontzat artu ez ditekeen gauza bait da. Ta, On Julio, zuk-eta-nik-nai-edo-nai-ez, "lingua navarrorum", "naparren izkuntza". euskera bait da!

Biarritz'ko Agilera'n, San Mames'en, Mendizorro-tza'n, Anoeta'n eta El Sadar'en, BAI EUSKERARI deadar egiñez millaka bildutako euskaldun-jendeak eman dizu gorrotorik gabe erantzun egokia. Eta nik ere, gorrotorik gabe, eman nai dizut nerean:

— Ez bait da egia ikastetxeetan euskera erakustea umeentzat kaltegarria izan daitekenik. Alderantziz, bi

izkuntza erabiltzeak, aurrak ttontoagoak ez baiña argi-agoak biurtzen ditu, pedagogiak egiztaturik daukan bezala.

Apezok amabi urtez gazteleraz eta latinez eziak izan gera; eta ori, ez zaigu kaltegarri gertatu, anitz eta anitz onuragarria baizik. Eta, latinez eta gazteleraz eta euskeraz eziak izan ba'giña, anitz eta anitz eta anitz ederra-agoak izanen ziren jasoko genituen emaitzak.

—Orixe bera erakusten digu edestiak: Euskaldunak, bere Lege Zarraren araura, ez bait dire, ez arraioa, inguruko jendeak baiño motelagoak izen.

Orduango aundikien oituren araura, izkuntza bikoitzean aziak izen ziren San Iñazio Loiolatarra ta Frantzisko Xabier'koa. Ta ez ziran garai artako beste Santuak baiño motzagoak atera. Bai ordea aundiagoak, bearbada.

—Euskaldunok baztar guztietan ano aitortu oi dugu "euskaldunak" gerala.

Gogoan daukat nola, erdiaroran, Rada'ko Rodrigo Goigotzai eta kronikalari ospetsuak Erroma'n Letran'go IV Kontzilio Ekumenikoian, aro artako beste izkera ugariz mintzatu ondorean, Kontziliokideei erronka au bota zien: "Orain, nere izkuntzaz, naparren izkuntzaz itzegin nai dizuet".

Xabier'ko Frantzisko'k, berriz, orduango itza erabiliz, "mi lengua es la bizcaína" idatzi zien Malabar'tik Erroma'ko jesuïtei: "Nere izkuntza, euskera da. Ni euskalduna naiz"!

LATIEGI'TAR BIXENTE

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

## BAKIOKO EUSKEREAA - 5

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: "saldua, galdua"
- Bakion zelan esaten dan: "(saldúe, galdúe)"

Platon lako inoizko filosoforik andienak Greziako antxinatekoak izan ei dira, klasikoak, atan be. Gure Euskalerrriak, ostera, ez dau areelango filosofo ospetsurik inoiz emon. Gure Erriak, baina, filosofia berezko besteko sakon-sakona sortu dau euskerearen bidez. Berau esakeretan edo errefracuetan ugari be ugaria da eta. Alan da ze, guztiz filosofikoa. Euskerea izkuntza filosofikoa dalako. Errefrauetan antxinako filosofia edo kultura zuur-zaarra gorde dogu. Izkuntzearen aldetik, arkaismoz beteta dagoz errefracuok. Orrek guztiorrek, bada, Erri jantzi egiten gaitu.

Filosofia errikoi orretaz beteta dago Bakioko euskerea. Amen, osterantzean, BAZTERRETXE baserrian batu dogun errefracu mordoia. Ziur gagoz etxe askotan ezagunak dirana. Ziur gagoz be, asko be asko batuteko dagozana oraindinokarren.

• Agindua bat, emona bi, aginduagaz kontentu/konforme izan adi. (agindxue bat, emóna bi, agindxuagas konténtu/konpórme ixén adi)

- Aaleginak, mila modutara. (alégiñek, millé modútara)
- Alabea ezkondu eta gero, senarra etxera. (alábie eskondú te géro, senárta etzerá)

• Balego ta balitz, alkarren atzean dabilz.

(balégo ta balitz, alkárren átzien dabis)

• Dagoanean bonbon, ez dagoanean egon. (dáuenien bonbón, estáuenien eón)

• Errementariaren etxean, zotza burduntzi. (errementáridxen etzien, sotzá burdúntzi)

• Etxean otso, auzoan uso. (etzien otzó, eusóan usó)

• Gizon guztiak burua baltz, zein dan ohea igarten gatx. (gison gustidxek burúe baltz, séin dxen obie igérten gatx)

• Goiz gorri, ilundi iturri. (góis gorri, illúndi itxúrri)

• Atzamarra emon eta besoa artu. (atzámarra emón da besóa artú)

• Igaz igazkoa eta aurtan aurtengoa, nekez ezkonduko da ganorabakoa. (igés igéskoa da eurtén eurtengoa, nekés eskónduko da ganorabákoa)

• Ilundi gorri, goiz aterri. (illúndi gorri, góis atéri)

• Iturrira biaje asko egin ezkeru, kantarua eperditik apurtuten da. (itxúrrire bíje askó éin eskéro, kántarue eper-dítzik apúrtuten da)

• Jaungoikoak mokorik ez daukanari emoten deutso painueloa. (jaungóikoak mókorik estekónari emóten ' tzo pañuélué)

- Kanpo ederra, etxean gerra. (kánpo edérra, etzien gerrá)
- Kontuak kontu, senarra boltseru. (kontúak kontú, senárta boltzéru)
- Lapurra, lapurren bildur. (lapúrre, lapúrren bildxúr)

---

## EUSKEREA

---

- Leenengo asunak eta gero lazunak.  
(lélango asúnek da geró lasúnek)
- Lurra bigunago, arra barrurago. (lurré bigúnau, arrá barrúrau)
- Ondo eginaren pagua, ate ondoan palua. (ondó egíñan pagúe, até óndoan palúe)
- Pazko euritsu, urte opiltzu/ogitsu. (pásko eurítzu, urté opiltzu/ogítzu)
- Saldua, galdua. (saldúe, galdúe)
- San Andres, txarria askan trabes. (san andrés, txarrídxe askán trabés)
- Sustantzirik ez dagoan etxean, goizekoa arrastian. (sustántzirik estáuen etzíen, goisékoa arrástidxen)
- Txakurrak, an be oinutsik. (txakúrrek, an beré óñutzik)
- Umeak zer ikusi, a ikasi. (umiek ser ikúsi, a ikísi)
- Umearen zentzuna, etxean entzuna (umíen sentzúne, etzíen entzúne)
- Zer ikusi, a ikasi. (ser ikúsi, a ikísi)

### Berbalapikoa

antxinate= antxinaro, antxinaldi, antxina -antxinako sasoia.

arkaismo= zaar-zaarra dan berbea.

jantzi= kultu, ikasi, jakintsu.

bonbon= oparo bizi, eurrez gastatu, ondasunak ondatu.

burduntzi= okela erretoko erabilten dan burdinezko taketa.

nekez= oztan-oztan, zailtasunez.

Iazun= bizkarbaltz, erreketan eta itsasoan dabilen arraina.

opiltzu= ogitsu, talotsu.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

## MICHAEL KOSCH KAPITAINARI

Egaldi komertzialetan oi dan lez, egazkinak luna itzi ta minutu batzuetara, kapitainak bere burua aurkeztu, bidaz-tiei ondo etorria egin eta egaldiaren ganeko jakingarri batzuk esan daroaz. Au guztiau izkuntza baten edo batzuetan esan be.

Bagentozan, bada, arteragoko asteko eguenean Frankfurtetik Sondikara LUFTHANSAREN gaueko egaldian. Alan-go baten, luna itzi eta nabigazino goierea jadetsi ostean, kapitainaren abotsa argi ta garbi entzuten asi zan. Aurrean aitatutakoa iragarri euskun berak, lau izkuntzan iragarri be. Euron artean, euskeraz. Ederto irakurria edo esana, bardin deutso. Zurtz eginda lotu gintzazan onantza gentozan guztiok, euskerea be entzunkeran. Egundoko ezuste ederra kapitainarena. Oi ez lako gauzea. Nork eta kapitan alemaniarrek. Nongoa eta LUFTHANSAKOAKO. Zoritxarrez, gurera urreratuten diran aire-konpainiek aaztuta gaukez, eurentzako euskaldunik egon, ez dago eta. Baina Michael Kosch kapitainak baekian jakin Euskalerrira ginoiazana. Baekian Erri onek bere izkuntzea daukana. Kosch kapitainak marketing utsa baino geiago erakutsi euskun, begirunea, Erri onenganako begirunea, atan be. Edo ori begitandu jatan neuri, beintzat.

Eta ori eskertzekoa da. Ez dakit inoiz idazkitxu au irakurriko dozun, baina lerrootatik eskerrik beroenak emon gura deusudaz. Oorea zuri Kosch kapitaina!

Iniaki MARTIARTU  
1999ko zezeilean

# MORROITXOA KAPITAN

## (1.º SARIA)

Ipuin au Euskalerrri'ko bi erritan kokatzen da. Bat Garoerri, baserri zuriz jantzitako muiño baten gainean eta Garomendia'ren magalean. Garoerri'tik ipar aldera Kresalerrri, eta kaia du errigunea. Garomendia'ren egal batean Joxetxo'ren jaiotetxea ipuin onetako morroitxo.

Kresalerrria'ren kai inguruan, itsasora begira, urtez ondo ornitutako aiton bat dago pipa ortzetan duala exerita. Txapelak, kopetatik erori antzean, neke itxuraz azaltzen zaizkion bi begiei itzal ematen. Bere burutapenak, olatuen gainetik eta lainoen azpitik, umetandik asita bere bizimoduari jorratu bat ematen. Aldamenean mutil kokkor bat gelditu eziñik, jolas eta jolas. Ume orri geldirik egoteko esan eta aitoari dantzan egiteko berdin.

Baiñan unetxo batean umetxoa urbildu zaio aitonari eta onela ekiten dio:

- Aitona, aitona, esaidazu ipuin bat.

Eta aitonak une orretan ez du asmatzen jardun bearrik, bere istoria agertuko dio billobatxoari.

- Begira Jon: Orain urte asko dirala gure Garoerri'ko baserri txiro batean, ba'zan mutikotxo bat, Josetxo izeneko. Zuk orain ainbeste urte zituan. Bere jaiotetxea Garomendia'ren egalean, eta ez zan emankorra. Etxean Txirrita'ren bertsoan bezela" ezer gutxi jateko eta maiean ezin kabitu". Gurasoek egin aalean ere ezin bizimodua aurrera atera itxura on batean.

Obe bearrez, gure Josetxo naiz umetxo izan oraindik, zaarrena izanik, auzoko baserri batera eramatea erabaki zuten, an morroi izatekotan mantenu truk. Goiz batez, amak kopetea muxu eman eta etxetik abiatu zan. Norbere etxearen eta amaren goxotasuna utzita orrela bizimodu berri bat sortu zitzaion.

Goizean, goiztar, egunsentian, gauaz negua baldin bazan, jeikitzen zan Josetxo. Leendabiziko lana, ukullura joan eta abereei janaria eman. Lan ori bukatuta, gosari txikia egin, eta marmita esnea bizkarrean artuta Kresalerrri'ra abiatzen zan, zortzi kilometro bidean. Bizkarreko azala ondo gorrituta iristen zan.

An sal-erosketa egiten zan plazaren toki jakin batean uzten zuan marmita esnez beteta, eta aurreko eguneko utsik artuta itzulera bidea artzen zuan.

Tartetxo bat artzen zuan, ordea, bere kontura, solasera-ko eta nekea arintzeko, eta itxasontziei begira gelditzen zan kaiean exerita, jllilluraturik. Batzuk lotuta, beste batzuk itxasoratzen edo agian sartzen. Eta orrela egoten zan joaten zan aldi bakoitzean eta amets bat bere burutik kendu gabe: Bera ere aunditzen zanean itxasgizon izango zan, eta toki berriak ezagutuko zituan.

Batzuetan gerorako oriekin ari zala, uste baino denbora geiago joaten zitzaion, eta berandu xamar eginda, laisterrean asten zan; bai azkar joan ere! gainera marmita utsik...

Morroi zegoan baserrira iristen zanean, berriz ere lanari ekin bear, bazkaltzeko garaia bitartean. Otordurakoan ango etxekoekin exeritzen zan. Eta ontzi bakarretik jaten zuten potajea. Bein atera ezker, andik aurrera bakoitzaren abildadea libre, koillarari eldu eta babarrunak aoratzeko. Josetxo, morroitxo, erdi lotsatuta egoten zan, eta konturatu orduko utsik ikusten zuan ontzia; eta artean urdailleko arra ase gabe.

Gero arratsaldean asi eta gaberaino, ara eta onera; gora eta beera, gelditu gabe etxeko lanetan laguntzen. Eta orrela egunero erdi goseak.

Denbora asko ez zuan era orretan igaro, ordea, eta egun batean, goizean jaiki eta auxe pentsatu zuan:" Auek nere ama baino pobreagoak dituk" eta morroi zegoan baseritik atera eta laisterrean asi zan, eguneroko oizko eginkizunetan ez zuan bidean barrena. Era orretan bizitzerik ez zegoa- la eta, berriz ere amaren magalera. Amak urrutitik ikusi zuan Josetxo, etxe aldera zetorrela. Arnas estu iritxi zan eta amak begiak iturri bihurturik artu zuan bere besoetan eta estu-estu eginik orrela euki zuan denbora luze batean.

Gero toki obeagoa aurkitu arte etxean jarraitu zuan. Gabonak pasata gero, bigarren aldiz morroi joan bear izan zuan, gure Josetxo, baiña oraingoan famili oneko baserri eder batera. Gaiñera ez zuten umerik eta semetzat artu zuten. An lana egin bai, bere adiñari zegokion neurrian, bainan eskolara ere joaten zan. Tarteka berriz, aita eta amarengana azaltzen zan. Amar urte zituan eta emezortzi bete arte egon zan.

Saso beteko emezortzi urteko gaztea zala itxasgizon izateko erabakia artu zuan. Azkar egin zuan Kresalerrri' ra arteko bidea, gainera marmitarik gabe. Ez zuan denbora luzean egon bear izan eta egun berean artu zuan bapore bateko nagusiak.

Aurrena gertu xamarreraiño joaten zan, antxu eta atunetara. Gero arrastrerotan Gran Sol'eraiño, eta bakallutara Terranoba'raiño, eta itxasontziko kapitan izatera eldu zan. Berrogeitamar urte iraun zituan itxasoan, zaarsaritu arte. Berak ere orrela Euskalerrria eta arrantza deritzanaren istoria sendotu egin zuan.

Orain Jon, billobatxo maite, itxasgizon kapitan ori, egunero tegorrean egoten da baiña biotza beti itxasoan dualarik. Oñak lurrean eta gogoa itxasoan. Eta bai al dakizu zein dan kapitan zaar ori? Bada, zure aitona Joxe. Bai, zure aitona dezu Josetxo morroitxo ura gero kapitan egin zana.

- Bada, nik ere aitona Joxe, kapitan izatea nait det.

- Ederki dago, baina orretarako aurrena eskolan ondo saiatu bearra daukazu, asko ikasi eta mutil aundia egiten zeranean, orduan etorriko zaizu erabaki ori artzeko garaia.

Olatuen burruna entzuten zalarik, kapitan zaarrak pipatik kea lainoen kabira botatzen zuan. Eta aitona Joxe,



---

## IPUIN-SARIKETA

---

kapitan zaar orrek, eta bere billobatxo Jon'ek, eskutik elduta, etxera bide artu zuten illunabarra zan, eta kaiatik kanporatzen asiak ziran baporeak gaueko uztaren billa...

MURUA TAR JOSE M.<sup>4</sup>

### ARRIGARRIA

Arrigarrizko trumoiak  
ta suzko tximist argiak...  
baretu zitun ur danak  
Jainkozko indar biziaz.  
Maisuaren nortasuna  
ezagutzen ez ebenak  
txit arrituta eukazan  
aren Jainkozko almenak.  
Nor da giz arrigarria au...  
ekaitzak menperatzen jakoz...  
nundik daukaz indar orrek  
almen indartsu jarrioz..?

### LAUAXETA

Berezko doi ederrez  
mindu ziñan erriaz  
sorrera garbian;  
odola zeunkan lertzen  
amaren gal-zorian  
kateien azpian.  
Oi zeñen samiña da  
ixildu ezindako  
amarren negarra..!  
gizonak ama il nai...  
zuk ori ezin etsi...  
barneko deadarra.  
Gogozko indar aundiz  
dana eskeini zeuntsan  
euskaldun lurrari;  
azur, mamin, odola  
grñaz maite zenduan  
Aberri amari.



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

### AGIRRE

Zer zan zure ederra..!  
Zuk zer aukeraturen  
gizon doaietan...?  
Urdiña garden dan letz  
eguzkizko urretan,  
zu, euzko tarretan.  
Euskalerriko muiña  
amodiozko garrez  
jaio zan lurrian;  
or, edozki zenduan  
enda onen guriña  
odolez batian.

### KUKU

Loretan lore dana  
maietz abeslarian  
kukua kantari;  
montor ostean dabil  
zelaitik zugatzera  
lirain egazkari.

Maitasunezko kanta  
umetxoei abian  
goiza urratzean;  
umea ixil ixil  
amillotxaren lerrez  
abi barrenean.

Mutil jaio barria  
atsedenetan dago  
oial zuripean;  
noz ikusiko ete  
kukuaren lumea  
zugatz adarrean.

PAULIN

## IZKUNTZA: Efi bakoitzaren altxoía

Alsazia'k ebazkizun andia izan zuen eta Euzkadi'k antzekoa izan dau.

Alsazia a'k parantzera izkuntza eben, eziketa ere parantzerez izan zan, eurak izkuntza ori maite eben. Doixtafaen menpean erori ziranean, orduan berarentzat bikaiñagoa izan zan. Alemanez ikasi eragin eutseanean, atsekabez beterik ez eben euren izkuntza aztu nai izan eta zin egin eben o ela egitea. Itz auek esan ei ebazan: "ERI ZAPALDUAK IZKUNTZA ONGI ZAINTZEAA ESPETXEKO GILTZA EDUKITZEEA BEZALA DA".

Euzkadi'rentzat irakasbide ede a ta egokia. Guk ere euzkaldunok gure izkuntza sakon sakonki ikasi, gero ta geyago erabili, ta ondo zaindu bear dogu, gure etxeetan, kaleetan eta leku guzietan giro euzkalduna sortu daikegu. Gure abe i Euzkadik eskertuko leuskigu.

Ipuña? Edestia? Nork daki! Bai gure Euzkadi'rentzat ere du egokia.

Aspaldian, nere ikastaroan, frantzezez idazti batean irakurita neban izen onezaz: AZKEN-IKASKAIA.

Alsaziatar ikasle txiki baten eguztaldia:

Goiz ontan ikastolara alperkeriz niñoan. Nere bildur aundia nere ikaslearen bu oka itxaroten. Ain zuzen, egun ontan aditz-izentzaz galdetu bea euskun.

Piper-egitekoa zan nere asmoa, gogoz mendietatik ibiltzeko. Giroa ain bero, ain argi zan! Baso-aldian xoxo'ren abestiak entzuten... danak aditz-arauak baño geiago eraka i ninduan; baño nere buruari aurka egin neutsan gogor ta arin ikastolara zuzendu nintzan.

Udal-etxetik igarotzean, lagun-talde aundia orman egozan iragarkiak irakurtzen ari zana ikusi neban. Andik izpar txafak etorkuzan bi urte ziran; erasoia galduta, buruzagien aginduak. Gelditu gabe, nereki: Zer? Geyago oraindik? Enparantza zear arinka niñoan ta e ementariak, iragarpena irakurten ari zala, oyu egin eustan: ez ibili o en arin, txiki, beti garaiz elduko zera. Ize-kaz ebilela uste neban ta lotsatuta ikastola txikira sartu nintzan.

Geyenetan, ikasaldi asi-ta, zarata kaletik ere entzuten zan. Alde batetik ikasleak oso-goi be iz eta beñiz alka ekin ikasleak esaten, bela iak estalita obeto ikasteko; beste aldetik irakasleak ada az mai gañean jotzen: ixilik egon! Nik une au ustiatu nai neban nere tokira joateko, irakasleak ikusi ez nengian. Baña ain zuzen egun artan dana lasai egoan igandeko eguna izan ba zan bezela. Leyo edegietatik nere lagunak bere lekuetan eserita, irakaslea ixilik ebilen, bere adafia besopean ikusi neban. Bea ezkoa izan yatan atea edegi ta nere tokira joatea. Arpegi go iaz ta belduí aundia nere!

Baña irakaslea'k begiratu ninduan eta oso goxo esan eustan: zoaz zure tokira, nere ikasle maitia, zu gabe asteko gengozan. Bereala igaro eta eseri nintzan.

Orduan, a ituta! Gure irakaslea'k ikustaldi egunetan ala sariak banatutakoan erabili ebazan jantziak erozala ta beste aldetik ikastola guziak zerbaiz berezia zeukala oartu neban.

Oraindik a igarriagoa iruditu yatana; areto atzea geyenetan utzi egoten zana, aulkietan e iko lagun talde bat an eseri-

ta ta ixilik, lengo endorea, gutun banatzalea ta geyago ikuste, izan zan.

Ni onela nengoa bitartean, irakaslea zurzeler a igo zan eta len bezela abots goxo ta sendoaz esan euskun: ikasle maiteok ematen daustueguna azken ikaskaya da. Berlin'dik agindua eldu da: Alsazia ta Lorena'ko ikastoletan alemanez baka ik irakutsi bea dala. Biar irakasle be ia elduko da. Orain da ba zuten prantzezeko azken ikaskaya. Adi egon zaiteze, a en!

Itz auek nazpilatu ninduen. Gizatza oyek! Oía Udaletxean iragafi ebena! prantzezez azkena! Nik ain gutxi nekian! Neke aundiak nebazan, aldia galduta, ainbeste piper egin, kaletik arinketa egiñik artean, Sa e'tik labanik. Nere idaztiak beti asega i, astunak neretzat, une ontan adiskide onak iruditu yatazan eta auek uztea nekezkooa biurtzen zan. Irakaslea joan bea zala eta geyago ez neukela be iz ikusiko, min aundia zan, eta eman eustazan zigo ak aztu yatazan.

Gogorapen auetan nengolarik, nere izena entzun neban. Orduan benetan damu aundia izan neban, eta ezin ezer esan, lotsatuta, burua igo ausartu gabe. Irakaslea'k oster a esan eustan: Nere ikasle maitea ez daustut geyago burukatuko, oso saminduta zagoz-ta, Oía zer gertatzen dan. Egunero diño gu: Ba! Biar ikasiko dot! Zuek ikusten dozue oraingoa. Au izan da beti Alsazia'ko astekabea: irakaspena biarko uztea. Gure arerio oyek guri esan dagikegu: nolanai dozue prantzeta ak izatea, ez itz egiten, ez eta idatzen ere ez ba dakizue? Danok eña dogu. Gure gurasoak ez dabez alegiñak egin berbaz ondo irakasten, Jaurlaritza lotan izan da. Gero prantze'z buruz itz egin eban: gure izkuntza ludiko ede ena, argiena da, guk euki bea dogu, iñoiz aztu gabe. Ta "E I ZAPALDUAK IZKUNTZA ONGI ZAINTZEAA ESPETXEKO GILTZA EDUKITZEEA BEZELA DA".

Gero prantzeraz gai bereziak berak iraku i euskuzan. A ituta nengoa, dana oso ondo ulertu neban, dana e eza iruditu yatan. Irakaslea'k beste egunetan baño eroapen aundiagoa bere azalpenetan. Bukatu baño lenago bere jakituri guzia gure buruetan bat batean sartu nayaz. Irakurketa ondoan idatzi eragin euskuzan gauza be iak, politik eta itz auek: France, Alsaze!! Danok, txikiak ere, ixiltasun aundiaz, zaletasunaz lan ta lan.

Telatu gañean usoak egaka, ta nereki niñoan: Auek ere euren u uka alemanez ez bagie egin! Noizean bein nere irakaslea ikustatu neban, bere begiak xoko guztietan jartzen, ikastola txikia ta maitea eraman naye an bezela. Ogetamabost urte leku berean, ezer aldatu gabe! Atarian intxau ondoak asi ziran eta berak landatu ebanak lorez leyoak apaindu ebazan. Ura bere atsekabea! Alaz ere eginkizunak bukatzeko aiera eban. Nere azken ikaskaya beti gogoratuko dot:

Bat batean Eleizako ordularia'k amabiak jo ebazan. Orduan irakasle guztiz zurbil bat jeiki zan: Nere adiskideok, ni... itota, ezin ja aitu. (01 beltzera itzuli, artu igeltxoa ta bere indar guziaz, izki argiaz idatzi zuan: Gora France! ta eskuaz kiñuka: bukatu da, joan zaiteze!

URRESTARAZU'TAR MIREN

---

# ODOLEZKO LAZTANA

## (2n. SARIA)

---

Goibel egoan gure errietako aroa zapaltzailleen iski-lupear eta, zuzitu ta sakabanatutako aldi txar eta bildur-garrion artega bizi ziran erritar guztiak.

Egontziak goitik eta suagakadak beetik, inguru guztiak apurtu ta erre, arrotzen andigura asegaizak betiko ondatu gura izan eben, ba, gure aberria.

Erritar guztiak gengozan zoritxarpean, gudearen ondamenean biziak eskegita eta, Erioaren sastakai zorrotza agertzen zan nun-nai, sorbatz eragilleari dis-dis eragoiola.

Adiñekoak sendo, gura ez ebela eldu ekien gudarako bearrean eta, gazteak, gazte abertzale ta kementsuak askatasimaren gogaiak eragiñik zelai, tontor eta mendietan burrukaldirik gogorrenetan.

Illun ageri zan bakearen argi-izpia baiña askatasun-eguzki disdiratsuak gure mendiak nozbait argitu egikezan itxaropenaz, burrukaldi anker areri eusteko.

Nork uste egikean ain beargin eta bakezkoa genduan erri leun eta otzan onek gudean eta, gudarik zital eta ankerrenean atan be, sartu bearra izan eukeanik!

Arrantzale, ola-gizon, baserritar eta enpaidu guztiak erantzun eutsoen, ba, aberriaren deiari ta, era guztietako gazteakaz ornidu izan ziran gudari-zaildiak. Emakume zintzoaik be etziran atzerago geratu euren laguntasunagaz gudariak adoretu, jantziz ornidu, zaurituak zaindu ta abar egun latz areitan.

Ez eben atzerantzik egin izan, ba, gure errietako mutil zintzoak arerioaren aurrean, erritarren adorea be eurakaz ebela.

Itsasertzeko ta itsas-aldetik urrunegi bako mutillakaz ornidua izan genduan Itsas-alde gudari-saildia ta antxe, saildi atantxe, ibilli izan gintzazan, Bermio, Lekeitio, Markiña, Gernika, Mungi ta erri onein inguruetakoa mutillak.

Baserritar, arrantzale zein kaletar, guztiak izan ziran, ba, mutil on, kementsu ta abertzale zintzoak eta, gogor jokatu bearra izan genduan gure aldean-tresna ta gizon-nez milla bidar ugariagoa zan gudaroste arrotzari eusteko.

Gudeak, gerreak, berezkoak dauzan gose-egarri, izerdi-larri, iztura, ezbear, odol ixurtze ta neke guztiakarren be, ez genduan adorerik galtzen askatsunaren amesa gogoetan genduala.

Amaikatxu itxaropen eten, asmu eder lorrindu eta

burutapen galdu izan ziran betiko, gudari zintzoen gogo-biotzetan! baiña norbere jaioterriaganako maitetasuna aundia da izan be eta onek, aberriaganako maitetasunak, adoretu egiten dau eta bildur-ikarak uxatu.

Atsekabezko egun latz areitan bizia gaizkatzea genduan arazurik beiñena baiña, etzan erreza suagakada ta iskillazkarren berunbil zaparraden artetik txatarra zatien batek ikutu bagarik urtetea.

Gudea baiña ezer kaltegarriagorik eta ondamengariagorik ezin izan daiteke gizartearentzat.

Urduña inguruko mendietan gudaketa gogorretan ekin ondoren, etxera joateko baimena izan genduan. Guda-oiñetako larri-aldiak arintzeko pozezko egunak izan genduzan etxeko ta erritarren artean...

Gudako joan-etorri ta jazoera guztiak azaltzea luzee-gia litzakidanez, neuk geien ezagutu izan neban eta alkarregaz ibilli-bearrak lagun kutun ez egin genduzan Aingeru zintzoaren jakingarri batzuk edesiko dautsuedaz.

Gabonak ziran eta, gudea dala-ta janarien urritasuna nabarmentzen zanarren, besteak beste, apari ona atondu eban Aingeru-neko amak, Gabon-gaba ospatuez semearen etorrerea be bide batez ospatuteko. Guztiak ziran pozik, guraso ta seme-alabak, etxeko epeltasunean, aspaldiko utsunea betez eta, maiaren inguruan jesarri ziranean, aita onetsi eban maia, oiturea ebenez eta, jaten asteko ziran unean besarkada estua egin eutson, amak semeari ordurarte eutsi eziñik eukazan negar anpulu goriak laztanen arten ixuriten ebazala. Bere seme kutuna samurki lanztandu eta malkoeri askatasuna emonaz azazkau zanean, bare-bare geratu izan zan, eta nasai asi ziran, jabez berbetan.

Aita, ogia etxera ekarteko itsasoak austen bere bizian gogor jardun izandako gizon giartsua nasai egoan, kezka ta ardurak bere barruan izanarren. Eta arrebak, Aingeruren lau arrebak, urduri egozan baiña, areik be beingoan baretu izan ziran, izkirimiri batzun artean gudako jazoera barreikarri batzuk edesten nebea asi ekionean.

Aitak eta amak ez eukeen gudeari buruzko autuetan ekiteko gogorik baiña, gogait eragiteko lain itaun egiten eutsoezan arrebak eta, etxeko guztiak alkarregaz egin bear ebezan egun urri areitan itzi egiezala goibeltasunak eta jazoera illunak, esan eutsen aitak, bere emazteari samurtasunez begiratzen utsola.

Ordurarte izandako atsekabeen ezaugarriak ebazan arpegikerea aldatu egin ekion amari eta pozezko irribarretxua agertu ezpanetara. Ama pozik ikusi ebenean, besteak be pozagotu egin izan ziran. Orduan, aitak, "Ardau klinkada bana merizidu dau onek..." esanez, ardaun onaz bete ebazan edontziak.

"Etxetik alde nebenez gero, ez dot onelan nasai jesarrita egoteko aukerarik izan" esan eban Aingeru'k, apalduten asi izan zireanean. "Eugaz gogoratu bako jatordurik etxuaguk egin izan, ba, geuk bere, alde oanez gero" geitu eban aitak. "Leen jakana intzan baiña, aspaldion etzoan izango janari aukerarik-eta, edozer jaten ikasibearra izango oan...". Esan eutsan Miren, arreba zaarreak.

Jakana? "Mixkiña zan ori" geitu eban Nekanetxuk irribarrez eta, Begoñak eta Izartxuk, alkarrerri begiratu ta irribarre egin eben, nebeari zeozertxu esan guraz baiña etziran auzartu, amak agirika egin ez egioen.

—Zenbat bermiotar zabilze alkarregaz? itaundu eutson aitak.

—Gure zaillean zortzi, baiña beste taldeetan bere aintat dabiliz.

—Alkarregaz ondo atontzen zaree baña.

—Oba ez, ama! Alkarren anaia bagintzakenez. Leen bere bata-bestearen lagun gintzazan eta arrisku edo galtzoretan geitu egin oi da laguntasuna, alkarren bearrizana bere sarri izaten da-ta.

—Jabon zeuon buruak eta zuur ibilli, arinkerien bategaitik ondatu ez zaitekezen.

— Bai ama. Aleginduko gara, galtzoretan zuur ibilliz.

"Iñor il dok ala?" itaundu eutson irribarrez, Nekanetxuk. Au entzun izan ebanean aserrezko begirakunea egin eutson amak eta, "olango ganorabako itaunik ez dona egiten, Nekane", esan eutson aitak, maitekiro.

—Ixildu egin ziran unetxu batez eta Aingeru'k:

"Gure ama lako sukaldaririk munduan eta Markiñan bere ez".

—Makiña ez dok mundukoa ala? Mirene'k, barreari eutsi eziñik.

—Esakerea dona ori "Munduan eta Markiñan" esan eutsen aitak.

—Zuok, neskatillok, ez dakizue olakoxe esakerarik bere, esan eutson Aingeruk.

Adiñekoak itz egiten dogunean zuur egonez gero, esakera asko ikasten dira. Esakera zaareri etxake galtzen itzi bear, orreixek, esakerak doguz, ba, berbetea edertu daroenak. Esakera bagako berbaiekerea, gatzik bagako janaria lakoa dogu. "Bai. Olantxe da izan bere" esan eutsen aitak eta beste burpil bat emon eutsen autuari.

\* \* \*

Aurreko egunetan ego-aizea ebill arren, gau atan guttiz aldatu eban eguraldia eta ipar-aize otza eta, euria ta iñetazia asi ziran, sendo, oiñaztu ta ostots ikaragarritz.

—Gudoñetan baiño bestelako lekua dogu emen, -esan eben Aingeruk.

—Bai, mutil, geitu eban aitak.

"Ez dago bakea baiño ezer obarik munduan, baiña gizaseme buru-gogor batzun andigurreak bakez bizi diran erriak menpean euki-gurreak sortzen dauz olako zoritxarrik eta, amesik bere egingo ezkenduan guda anker bairzen zikin onetan sartu gaitue euzkotarrok be!

"Bakea ta zoriona adirazten dauskuen Gabon-jai oneitan ez dagigun aittetu egin guda-auturik" -esan eutsen amak-. Guztiok gagoz, bai, alkarregaz, eta baikor eta pozez ospatu daiguzan jaiok.

Barriro ez eben aitatu bere egin gudako aururik eta gogaldi onean jarraitu eban.

Aize indartsuak txistu egian leio-ertzetan eta gogor biñotson ekaitzak, bazterrak iñarroziz. Semearen etorrearako eskapolot-muxturrean ondo gordeta eukan paittar-bonbilla atera eban amak, eta txolkadatu bana edan eben, akeitaz, Gabon-gabari berea emoteko.

Goizalderarte egon ziran sutondoan, beredin autu ago-miñean ebezala, azpeltu eziñik, aspaldian ez lez alkarregaz egozanez. Bearrizana bere ba-eukan eta, aspaldiko alde, ogezuri-bigunean sartu izan zanean, nasai lo-egin eban Aingeruk.

Amaitu ekiozan egun labur eta onak eta ostera be gudoñera tamaltasunez beterik.

Leelengoz etxetik aldekeria bera be goibelagoa izan zan etxekoentzat, eta baita berarentzat, Aingerurentzat bere. Aurpegikera arduratsuz aita, ama negarrez eta etxeko guztiak itzik aterateko adore barik.

Gotillun eta gogorapenez beterik alde eban Aingeruk etxetik, baiña beste gudari-lagunakaz batu izan zanean argitu egin ekion gogoa eta Eusko-gudarien kantea abes-ten alde eben etxeko ta erritarren agurren artean.

Bada-ezpadako aldi negargarri atan iñoz baiño be biziago yatorkozan gogora bakearen bearrizana ta gudeak dakazan galtze ta kalteak bermiotar gudari zintzoari eta, berekautan iñoan: "Ez dot iñorentzako ezetarik gorrotorik ez ikusi-eziñik eta iskillu iltzaillea eskuetan dodala dakust neure burua, aurrera letorkidan edozein arerio ilteko gertu. Gu geu ez kara guda-zaleak ez iñor il ez erririk menperatu gura dogunak baiña, guda arbuigarri baizen naskagarri onetan sartu genduezan eta indar eta adore guztiakaz geure aberria aldeztu-bearra

---

## IPUIN-SARIKETA

---

dogu, ba saltzaille ta etoiak gintzakez ostantzean. Askok jausi bearco dabe guda zikin onetan baiña, il naiago dot aberria ondatzen ikusi baiño".

Olakoxe burutapenetan murgilduta zala, esiak apurtuguraz urtikaldetik etozan suagakaden lerkai erailgarriak aldamenetan jausten asi ekiozanean senera biurtu izan zan eta zuur jarri izan ziran arerioen zirkiñeri adi.

Doistarren irurogetaz egazkin, erazoka, joan-etorrian, goitik eta suagakaden ekitalde bildurgarriak beetik, italiarren guda-burdi zapaltzailleak aurretik eta espaiñiar, mauru italiar ta abar arein, guda-burdien atzekaldetik, berarizko adorea ta kemena bear ziran, gero pusil ziztrin banaz eta beti ondoegi be ez ebizan iskillazkar batzukaz ererio zapaltzaille amurrutu arei eusteko.

Aurretiaz egindako luganetan batzuetan eta beste batzuetan burua ezkutetako atx-osteen bat edo beste baiño ezkenduala jokatu bear izaten genduan eta alakoxe burrukaldi gogor eta ikaragarrietan eldu izan gintzazan Soillube-mendi ingurueteraño.

Lo apur bat egiteko ez gaberako aterperik bere ez geienetan, eta surik bere ezin egin arerioak zalatu ez gengan eta itsasoko aize otzak erruki barik astintzen ginduzala igaro bear izaten ganduzan gau itzal areik, etsaiaren eraso aldien zain, aririk mengalenetik eskegita biziak genduzala, eguna noiz argituko arduraz. Eta, biaramonean, ostera be, egazkin iltzailleen burrundada zematzaillera etentzeke ganean, suzko ta ostantzeko lerkai ilgarriak darioezala inguru guztiak sutuz eta ondatuz.

Benetan itzal eta larria gure aberriaren ganera jausi izan ekigun zoritxar anker eta eraillea. Baiña Euskalerrri zaarraren zoritxarren artetik Euzkadi barria sortu zatekean itxaropenaz, adoretu jokatu bearra izan gendun geure buru-eskintza, neke, odol-ixurtze ta eriotzak aldien baten egi biurtu zatekezan itxaropen biaz.

Bermio 'tik ur, Matxaku-aldeko tontor baten gengoan Jorraillaren askenetan eta, ainbat bidar arrantzan pozik eta bakez ekin izan eutsen itsaso zabal eta urdiñari adi egoan Aingeru, eraso-aldi atako bake-une batez, oldozkor: "Ur eta urrun nago etxetik. Itsasora jatzi eta uger be joan naitekean bestean ur. Bakez bizi izan gintzazanean bear dan bestean ez genduan onesten askatasuna baiña, oraintxe bai, nabaitzen dot gizonak bere eskuko izateko dauan bearrizana... Orixe, geure itsaso zabal orixe, bizen aske ikusi gura neuke au, geure aberri au be, arrotzak lotzen gaituen kate ta lokarri guztiak etenik..." Eta burutapen oneik-birradoretu ta birkemendu egin eben askatasunaren alde al eukeanarte zintzo ta gogor jokatzen jarraitzeko.

Bermio, Aingeruneko erri maitea andik bide asko barik egoan, ba, eta inguru atako baso ta zidorren barri ondo ekian ezker, illunaren laguntasunaz joan egikean

etxeokak zetan ziran jakiten baiña ezin egikean olakorik egin, bada-ezpadan be. Italiar ta enpaidu guda-mutillez beterik egoan Bermio-inguru guztia ta galtzori andikoa zatekean alako auzartikeriarik egitea. Uxatu ebazan, ba, burutapen oneik, etsaiaren egontzi bidurgarriak agertzen asi ekiguzanean.

Egunak joan eta egunak etorri, senetik urtetako lakoxeak izan ziran burrukaldi ixugarri areik eta, gudaketa atatik bizirik urtetako be itxaropen asko barik genbizan. "Geure odol-ixurtzeak berpiztuko dau aberria" esan oigenduan eta anaiatasun berroz alkarri laguzduz, jasaiten genduzan egun nekagarri areitako ezbear eta zoritxar guztiak.

Maiatzaren leelengo eguna zan. Egun argia egundo ba-da! Bare-bare egoan itsasoa ta ortzia argi-argi: bee ta goiaren margo urdiñak eta orban bageak, poz, bake ta itxaropenaren edertasuna eskatzen eben. Mendietako zelaia be eze agiri ziran udabarriaren poz eta bakea eskatuten ebela, jantzi barriz, pitxi (lora) ugariz, margo-tsu, usain gozua erioela, baiña aldi txarra zan alako edertasuneri adi guda madarikatuaren ardura barik konkortuta egoteko.

Sarri poztu izan zan izadiaren edertasunai adi Aingeru baiña egun larri areitan etzan aiko-maikoetan aldia emoteko astirik, bizia etzala aberriaren ondasunak be jabon egin bear ziran-eta.

Beste alderdi bateko gudaketan ebizalako-edo, egun atan ez eutsen ikertaldirik egin izan arerioen egazkiñak eta suagakadak bere urriago eltzen ziranez, aspaldiko alde arnasa apur bat nasaiago artzeko erea izan genduan, bearrizana be ba-genduan-eta.

Goaitari egoteko aldia amaitu ekionean, luganearn alboko zokondotxu baten jesarri izan zan, aizeak eratzitako zugatzaren enborrean, gure bermiotarra, eta betaurrean eukan itsasoari adi jarri zan oldozkor. Bere etxe-koek zetan ete-zatekezan ardurea etorkion, beti, gogorta: "Ama, aita, arrebak.. "Barriro alkar ikusiko ete-dogu?" Egun areitan, zeozer adirazten emon-gurako goibeltasun zuntzigatxa ebilkion bere buruan eta alegiñak egiñarren be ez eutson aldetan. Astindu ebazan burutapen lorriñak, atera ebazan ingurraztitxua ta arkatx-kondo bat sakeletik eta idazten asi zan, arnasa luzea artuta, gogoa seneraturik.

Asi zan idazten baiña, ostera bere, luzaro iraun eban itsasoak eta ortziak bat egiten eben urrun ameskoiairi adi, senetik urtenda ba'legoan, idazten jarrai ala ez, zetara jokatu ez ekiala; baiña etxeokoei zeozertxu esateko beste erarik barriro egundo be izango ez eukean susmoa ebilkion, eten barik, bere gogo atsekabetuan eta idazten birrasi izan zan, lelengoak idatzitako apuna atzindu-ta.

Egunik geienetan ikusten ebazan bere alboan jausten

gudari-lagunen batzuk eta ainbeste txatarra ta berunbill zaparraden artean, eziñekoa eritxon, ba, lentxuago-gerotxuago ez jaustea. Geiago bere, auxe dalata artu eben etxekeori bere azken-agur-antzean idazkia egiteko asmua. "Bizirik geratu ba'nendi, au, orain egiten diardudan gutun au, ez dau iñok bere irakurri izango; baiña guda zikin onetan jausi ba'nendi jausi, norbaitek eroan al-bekioe gure sendikoeri.

Urrengo auxe izan zan, bat, bete-betea, aren, idazki samingarri baizen unkiarri aretan idatzi ebana:

Neure guraso maite ta arrega laztanok: Bermio, geure erri maitagarritik urrean, Matxaku-inguruko tontor baten, itsasoko aize ozkirriak bekokia laztantzen daustala diardut au, gutun samintsu au, zeuori idazten; guda onetan il ba'nendi, zeuon Aingeru'ren gomutagarria izan dagizuen.

Aberriaren askatasun-bidean enaz iñoz bere kikildu, ez atzeratu, baiña tamal nago, guztiz tamal, egunero neure ondoan lagunik onenak jausten ikusita.

Odol asko ixuri izan da gure mendietan, gazte kementsuen errubako odol gardena eta onagiño zauritu barik eldu izan nazarren, usterik gitxien dodanean jo nengike txatarra edo berunbil ilgarrien batek.

Biar, Orrillaren bigarren egunean, daukagu orra, Bermio'ra, eraso egiteko asmua eta burrukaldia baldin burutu ba'dagigu edo bide-erdietan jausi ez ba-nadi, beintzat, or izan naiteke, ba, etzi goizalderantz...

Guda anker onetan jausi ba'nadi jausi, ez dot gura negar eta negar egon zaitezen ez bizi guztian giobel bizi izan zaitezen bere. Aberriari eskiñia daukat neure bizi guztia eta, egin bedi Jainkoaren borondatea.

Ba-dakizue maite-maite zaudazena eta zeuok bere bardin maite nozuenez, ba-dakit guztiz tamalgarri izan daitekeana zuentzat, nire eriotzaren barri eltzea baiña, nasaitu zaiteze, ta poztu, zuen semeak ta nebeak bere egin-bearra kementsu betez aberriarren ixuri izan daua-lako bere zanetako odol guztia, benetako abertzaleari yoakonez.

Gomutaki bana itxi gura neuskizue, bizi guztian zeuokaz izan dagizuezan baiña ez daukat ezer eskintze-korik, ama maite orrek gudara urten nebanean zeuk idu-nean ezarri zeustan zidarrezko katea Karmel'go amaren domiñeaz baiño. Biotz onekoen batek eroan dagitsuela oroigailu au zeuon eskuetara... Eta, eldu ba'daizu eldu, jabon egizu, ama, amarik maitagarrien orrek, Euskaleriaren alde bere bizi emon eban zure seme onen gomutagarri. Zuri, aita, besarkadarik samurrena ta gomutagarriena, Aberriaren onerako zeure semea il izan zala oneretxia izan dagizun. Eta zuori, arrebatsu kutunoi, laztan illezkor bana biotz-biotzez.

Ez, ba, geiago negar-angulurik eta agur, biotzaren biotzetik laztan sutsu banaz, zorion-lekuan alkar ikusi dagikegunarte.

Izan bedi, ba, Algutzidunaren naia. Eta, guda negargarri onetan neure bizi amaitu ba'ledi, artu egizue borondate onez, zeuon seme eta neba onen odolezko laztana.

Ni neu, 1936'garren urteko Bagilla'ren 16'garren gaberdian zauritua nenduen, Artxanda-mendian, eta Ain berak eta beste batek jaso nenduen. Arik iru egunera atxillotu nenduen, Basurtu'ko eritegian, eta arrezkero ez neban izan aren, neure lagun kutun aren, Aingeru on eta zintzo aren barririk.

Eritegi, atxillo-zelai ta baitegi, iru urte ta akats egin-ondoren, etxeratu izan nintzanean, Bermio-ra oster bat egin neban eta jo neban Aingeru bizi izan zan kalera eta andera zaartxu bat aukitu neban umetxu bat altsoan eballa, ate-zubian jesarrita, ni neu billa nenbillan etxetik urr. Aingeru eritxon seme bat eta iru alaba ebazan sendia ezagutzen zenduan kale onetan? -itaundu neutson-.

-Ezagutuko ez neban, ba! -erantzun eustan.

-Badozu arein barririk edo, ba'dakizu, nun bizi daitekezan orain?- Zutundu egin yatan emakumea, albo guztietara begiratu eta, ixil-ixilik esan eustan belarrira\_ Bai, Patxi gizon ona be ona izan zan, guztiakaz ondo atontzen zana ta mezedegia... Emengoak etziran gizaseme deunge batzuk eroan eben, egun goibel baten eta, mendien baten agertu ei-zan erailda...

-Eta, aren emaztearen eta seme-alabenik?

-Ez- Alde bearra izan eben emendik eta arrezkero, ez dira agertu izan onantz...

-Eta Aingeru'ren barririk, nun izan daiteken edo entzun izan dozu iñoz?

-Esateko andirik ez. Gerran il ete-zan bere izan zan zurru-murrua eta Amerika-aldera iges-egin ete-eban bere bai, baiña gauza garbirik ez.

-Eskerik asko, andrea eta, agur urrengorarte.

Emen itaundu eta an galde, arrezgero beti izan naz gudateko neure gogoko lagun aren azkena zelaz izan zatekean jakin-guraz baiña ez dot aurkitu izan iñun lorratzik ez arenik, ez bere arrebantik. Bizirik izan ba'lira zigur nago, nundik edo andik, jakiton jarriko nenduen.

Agur, Aingeru, betikotasunerarte.

AURRE APRAIZ'tar BALENDIN

# GERRATEAN; ZEARKAKO EZBEARRAK (3n. SARIA)

### La Muela'ko Aitza

Franco'ren Gudarosteak Katalunia Balenzia'tik aldendu nai du eta orretarako La Muela menperatu bear. "Gorriek gogor eusten diote mendiari, bera bait da Kastellon laudarako bidea eta andik itxasorakoa irikitzen dauana. Kosta ala kosta lortu bear dute "Urdiñek" elburu ori.

La Muela menperatzeko burrukan ari diren militarren artean, kementsuena, gogorrena eta kupiri gabekoena, Jerote Koronela da. Aurrera! esaten duenenan, joan bearko aurrera, bizkarretik tiroa artu nai ez ba'dezu, beintzat. Sarraskiak egiten ditu etsaien artean eta sarraski gogorak jasotzen ditu etsaien eskuetatik; ajolarik ez, ordea, elburua arrapatu ezkeru.

Gaur, zorritzarrez edo zorionez (zeñentzako dan), bera erori da seko, mendian gora dijoala...

Gauerdi-aldean urduri geure ospitala: zerraldo batekin etorri da frentetik automobilla. Medalladun gizona da ekarri dabena. Ildakoentzat daukagun gelatxoan laga dabe, lau kandela piztuen artean. Goizean etorriko omen dira agitarick billa.

Ia amabiak izango ziran familikoak, eta ondoren, agintari goienak agertu diranean. Emengo zalaparta eta emengo berebilla. Erresponsoa, falanjisten irrintziak, musikeroen "marcha reala", besarkadak, malkoak, agurak... Inguruko automobil guztiak gorpuaren ondoren irten dabe, txitak ollo-lokaren atzetik bezala.

Obiedo'raiño eldu diranean, uriaren sarreran, lorez apaindutako mako berezia jaso, ongi etorria emoteko... Erriko Agintarick zai; Gotzaia bera be bai. Andik katedralera; illeta zoragarriak; marmolezko illobi zoragarria. Dana izan da zoragarri.

Baña, frentetik kezka bat agertu da, au galdetuaz: Nundik eukan tiro zauria, aurretik ala gibeletik? Ixilleko polizikoek dabilta galderak egiten; geurean ere bai. Bañan, iñork ez deutse erantzun zuzenik emoten.

Zergaitik egiten ote dabe galdera ori? Susmo au artu zegoen: tiroa atzetik eman ez ote eutsoen, berak egiten eban lez. Egia argitu eziñ, eta Gudaroste baterako gau-

za naiko larria izanik, illobitik gorpua ixilka ateratzea erabaki dabe polizikoek.

Joan ziran gau illun batean illerrira eta illobitik ilkaja atarata, kapelara eramane eta irikitzen saiatu ziran. Ez zan gauza erreza: iltze ugariz josita zetorren. Estalkia eragin ebenean, ordea, mutu gelditu ziran alkarri begira.

Susmoa ez zan susmo ustela gertatu... Zerraldoa bere illobian gorde ondoren, egitasmo bat borobildu zen bien artean: Ixilik arazoa gorde eta gorpuaren bideak asiera asieratik jorratzea. Joan ziran La Muela'ra eta zeatzmeatz arakatu ebezen gora-beera guztiak: gorpua nortzuk jaso eben, nortzuk il-kajan sartu, nortzuk eritegira eramane... Frentetik eritegirako bidean, ez ziran gelditu; ez zerraldoa trukatzeko aukerarik izan...

Argirik iñun arkitzen ez ebelako, naiko erreminduta agertu ziran gure ospitalean; baña argi-izpi bat bera be ez eben bertan aurkitu; gauza guztiak oso garbi egoen: utzitako il-gelatik jaso eben gorpua... Emendik eramane zutenak, berriz, goi-maillako militarrek ziran.

Alan be, polizikoek ez eben arazoa bertan beera laga nai; bañan, itzalpean eta kontu aundiz ibilli bearra zegoen. Erbi-txakurrek bezala asi ziran berriro arrastoen billa: ango istilluak, ordea, errezak ematen zuten. Bi erizañek beeko il-gelatik gora ekarri ebela zerraldoa, ori garbi egoan. Erriko agintariek berebillean sartun eta Obiedo'rarte ez zirala baztarretan gelditu, ori be bai. Frentetik bertatik ekarritako il-kaja zan. An ez zegoen zuriketean ibiltzeko astirik, eta kaja guztiak berdiñak ziran, iltzez ondo josiak, bidean gorpurik ez galtzeko.

Asuntxi mojatxoari begirune eta zuurkeri aundienaz, egun aietako xeetasunak ataratzen deutsoez: koronela ezik, beste dozenerdi bat soldadu be ekarri ebetela guda-muturretik; baita erizain neskato bat be, ospitalean illa eta Burgos'era eramane.

Polizikoek Burgosén katedralera jo zuten. Ango sakristauari galde zioten, ia amabost egun dirala, iñor frentetik ekarri eben. Ezetz. Eliz-eliz ibilli ziran eta erantzuna berdiña: gerratik ez zutela iñor ekarri bi aste auetan...

Urrats guztiak alperrik. Ez zuten koronelaren arrastorik aurkitzen. Gauzak orrela laga ezin Gudaroste batean. Arazo larria zan eta argitu bearrezkoa. Ekin diote berriro lengo leloari: frentetik eritegira, eritegitik Obiedo'ra... Dana ondo; zer bakoitza bere tokian. Naaspilla apurra, izatekotan, eritegikoa bear zuen izan. Gorpua il-gelan dagoela, zer-edo-zer gertatu ote zitzaion? Unerik une, zerraldoa eldu zanetik aurrera aztertu bear.

Ez zuten geiegi nabermendu nai eta mojatxoarengana jo zuten berriro eta il-kaja jaso zuten mutillekin itz egin: eurok jetxi ziran il-gelara eta zerraldoa an zegoen maai-gañean lau kandela piztuen erdian. Bien artean artu eta kapelara ekarri zuten, beste maai batean ipiñi, loraz jantzi... Besterik iñor ez zan zerraldora inguratu eta eurok utzitako kaja eraman zuten Obiedo'ra... Polizikoe, ordea, bazekiten zerraldoa ez zala araña iritxi. Zer sorinkereri ote dago emen tartean? Begikoa egin ote digute? Nora jo ez dakite...

\* \* \*

Ez ziran oraindik polizikoe erritik aldendu, eritegira telefonoz jotzen asi ziranean:

-Eritegiko Komandante jauna?

-Bai. Zer nai?

-Alabatxoa il zitzaidan, operazio baten ondoren.

-Gogoratzen naiz.

-Falanjeko Neskatek eroe baten antzera egin zioten arrera.

-Eta, zer?

-Bere attitta eta amama Galizia'n bizi dira; orduan ezin eta orain etorri dira beuren illobatxoa ikustera. Illobi berezia daukagu eta zerraldoa atara dogu, iltzez zearo josita eta arotza ekarri bear izan degu irikitzeko.

-Gerratean ezin degu zerraldoak bear diran baldintzetan bialdu, eta orregaitik sendo josten dituguz. Baña, zer dozu?

-Gure alabatxoa ez dagoela zerraldoan.

-Utzik al dao?

-Ez, jauna. Barruan militar bat aurkitu degu.

-Emaidazu zure telefonoa. Ni saiatuko naiz arazoa argitzen.

\* \* \*

Komandante jauna, eritegiko zuzendaria, suturik gelditu zan; baña ez zekien nundik asi. Nor zan militar ori? Frentetik eri asko zetorren aldi artan eta ildakoak ez gutxi. Aien artean Jerote Koronela ere tartean izan da... Iñundik ez da, ordea, orrelako kexarik izan... Bildu ditu mojatxoak, medikuak, erizaiñak eta tarteko guztiak:

-Jaunak, ildako baten orde, beste bat bialdu degu; baña, nor?

Banan banan ildako guztiak aztertu ondoren, militar batek irten eban neskatoaren egun berean, Jerote Koronela.

-Baña, gauza arrigarria, Obiedo'tik ez da iñungo kezkarik agertu.

-Jauna -dio Asuntxi mojatxoak- bi gizona agertu ziran amen; gauza garbirik ez zuten argitu eta gorpua il ekarri zutenekin egin eben berba.

-Neri eta Pedro ri galdetu ziguten, ia zerraldoa beetik gora ekarri genduen... Baietz, berbera zala.

-Oiek jasoko zuten -dio Joxe'k guk mai-gañean imiñi genduen Perote Koronelaren gorpua. Gau-erdia zan ekarri zutenean eta il-gelara eraman genduen biok; an zegoen erizain neskatoaren gorpua mai gañean. Ura kendu, baztar batean laga, eta Komandatearen zerraldoa imiñi genduan. Eta, uraxe artuko zuten Pedrok eta bera lagunak...

-Eta, nun dago neskatoaren gorpua? Militar bat Burgos-en eta neskatoa, nun galdu da?

-Jauna -dio Pilar mojatxoen buruak- goiz artan oso goiz, erizaiñaren gurasoek etorri ziran eta guardia aldatutako erizaiñek lagun zien. An mai-gañean zegoen zerraldoa artu eta abiatu ziran Burgos'era.

-Orduan, orregaitik izango zan: guk zerraldoa lurrean ikusi genduen eta maai-gañerajaso Agintariek etortzerako...

-Ia, ia ondo ulertzen dedan: neskaren zerraldoa kendu eta Koronelarena imiñi...

-Bai, Jauna, Joxe'ek eta nik erizaiñaren gorpua il-gelara eraman genduen eta maian imiñi lau kandlekin; gero, gauerdian guk guardia aldatzeko unean, Jerote Koronela ekarri zuten eta neskaren zerraldoa baztar batean laga, eta Koronel jaunarena imiñi gañean...

\* \* \*

Eritegiko Komandanteak Gobernadore Militarri azaldu zion korapilloa eta onek Obiedo'koari. Illobitik atera eben Jerote Koronelaren zerraldoa eta, bere orde, zuriz jantxitako erizain panpoxa bat aurkitu eben...

A zer poza gurasoena, militar bizarduna bialdu eta bere alabatxoaren gorpua ekarri zitetenean...

Ori, bai, dan-dana izkaturik aundienagaz egin zan, ez zedin orbandu militarren oore disdiratsua.

Azilla 1998  
Arrinda'tar ANES



---

---

# ERRI ALDATUA (5n. SARIA)

---

---

Amets gaiztoa bai'litzan, gaizkille ta alproja aldra bat idurikatu geinke; euren asmo baltza, Bizkai'ko euskaldun erri koxkor eta kristau bat mendean artutea.

Gaurko eguenean berez sortu leitekez bakea urratuko daben jazoerak... Eta orrezaz gallera... Notin batzuk Txerrenén barrunbe dollor eta deungaz edenduta ba'dagoz... Zer esango dogu?

Erritxu orretan zar eta gazte, txiker eta aundi larri bizi jatzuzan; eder eta motz, beargin eta alper... Baketan bizi zan erria zenduan ostera.

Ez zan uri itzeletako aurrerapenik, bai ordea giro nasaiagorik Jentearn arteko artuemonak gizakoiago ziran, orko biztanleak ondiño gizalegea deritxan aren aztarnarik gordeten baekien.

Kristau sinismenari eusten eutsoen. Era barriak sortu badira be, oneik ez dozuz erritxu orretan errotu. Askotxuk zaar sundea sumau leie. baiña sarri barria obea ete?

-Etorkizuna gazteen esku dagoanez... Bertoko gaztedia ondatu bearko dogu-amorru ta gorrotorik baltzenaz agindu eban gaizkilleen buruak.

-Bai jauna, zure berbok aginduak doguz.

-Esandakoa egizue orduan.

Egun orreitan gizon areik zorogarriak edo drogak eskinten eutsezan gazte ta gaztetxoai, musutruk zein merke-merke; bertoko gaztetxu askok amor emon eban, eta amaraun orretan sartu zirean.

Erri aretako aita-amak kezkatzeko beste errazoa baeben beraz. Euren kimuen ibillera arrotz eta xelebreak kezkatzen ebazan.

Leen kirolzale ziranak, orain lozorro geldo biurtuta; ariñago ikastun zana, orain zorria baiño alperrago billakatu; maratz eta adeitxu zana, orain barriz zakar eta zital.

Lapurretak ugalduz joiazan, leen nekez jazoten ba'ziran be. Eskolara pipar egitea gauzarik arruntena biurtu zan.

Erri ori nekazaria genduan batik bat. Ango bizimodua izorratuteko zer egin?

Baratzetan ekai bereizi batzuk jaurtigi ebezala-ta, lurra ez eban arnaririk emoten; basarritarrak ezin ulertu eien orrelangorik zelan eitekean, eguraldia txarra izan ez zanez. Jaungoikoaren zigorra ete?

Etxeko abereai eden misterioitsu bat ezarri eutseen, eta berebiziko izurritea zabaldu zan, goi ta be.

Ordura arte iñok ezagutzen ez ebazan gaixotasunak sortu ziran, eta leen osasuntsu zana, ara orain makal ageri.

Egiaztia guzurti billakatu zan, biotz onekoa doillor.

Erri onetan askotxuk sinismena laga eban, eta leen ekandu oneko ziranak, oraingo onetan ordikeria ta lapurretari egokozan.

Erri onetan atarramendu zertxubait ataraten ekian bakarria tabernaria zan; mozkorrak baraurik egozanak baiño geiago zenduzan.

Orrezaz ganera, etxean geiago edaten eban, eta etxe askok beren ugor edo alkoola egiten eban; oneitako batzuren batzuk, bestera lortzen gatxa zan ugorra, ze i edo merkatu baltzean salduten eban, euntalako irabaziak egínez.

Ordura arte onomienez beteta egozan lanbideak eun-ez orain lotsari biurtu ziran.

Orrein orde, gero ta garatz illunagoak toki artzen ari ziran zorigaiztoko erritxu errukari aretan.

Gazteak, bein zorogarrien mende egon ezker, ez eban droga doan eskuratzen, garesti baiño.

Aurrak kuntze edo seksurako erabilten ebezan.

Idaztitegia ta ikastetxea zarratu egin ebezan; zertarako ikasi, zertarako irakurri? Jakintza arriskutsua baita!

Garai baten euskaldunak maiteen eban kirolari jagokanez... Pelotalekua ez eban itxi, baiña... Iñotxuk be ez eragoion pelota jokoari: kirol barria ukondoa jasotea zenduan, ta gero bonbil utsak frontoian zear geratzen ziran, iñok batzen ez ebazalarik.

Eleizeak, txadonak an irauan, baiña garai batean domekero oste ikaragarriak zintzo-zintzo joan ba'erioien be, orain laupabost alek baiño ez eban arako bidea artuten.

Adiñean aurrera joian emakuma batek oster, ez eutson eguenero otoitz egiteari muxin egin.

Erritar askok emakuma a zorotzat artu izan arren, berak ez eban etsi. Txadonera joaten zanean, gazte ta ume soster batzuk bere lepotik barre egiten eban. Mizto gaizto batek jota bai'leuden, mutil batzuk arrika egiten eutsoen. Emakumeak bira emoten ebanean, bere bildur ba'lira lez, gazteak lasterka urrintzen ziran.

Orra Marixa'k berekiko zer iñoan:

"Etorkizunean gorabeerak obe aldera egingo dabela zearo etzinduta nago-berak esan eroiane. Gure erriko jentearengan erabateko uste ona daukot, eta egun oneitan erriaren zilleidia edo morala, egoerea negargarria ba'da be, abelera onek ezin lei luzaro irau gizaldietan zear gallendu, nagusitu dan gizarte jator ta gotorra, urte xixtrin batzuetan ezin galdu leiteke, eskier nago".

Nok entzuten ebazan amama ak esandako areik berbak?

Emakuma orrek lekaroan, basamortuan berba egiten ebala irudian; gizaki zeken, deunge, ordi ta biotz-gogorak osatuten eban basamortuan.

Marixa'k otoi ta otoi egion Jaun Alguztidunari, gauzak aldatu egin eitezan.

Apurka-apurka, arrigarriaren arrigarritz, gizon arein barrunbea onbideratu egin zan.

Leen dongaro jokatu eban notiñak, euren okerraz jaubetuta, eragindako kaltea ezebeztuten aalegindu ziran, eta emoi pozgarriak jasoten asiak zenduzan.

Ordiai bizimodu kaxkar a itxi eien erregu egin eutsoen.

Alperrai beargin saiatu ta maratz biurtu eitezan.

Guzurtiai egiaren maitale billakatzeko esan eutsen, tai barik.

Gazte ta gaztetxoai, euren gurosoak maite eiezala ta eskolan aalik-eta geien ikasten jardun eiela, biar baliagarri ta onuratsu izango jakelakoan. Txaideak edo karrikak leengo garbitasuna berreskuratzen asi ziran.

Baratzak eta soloak leen baizen emankor izaten.

Lantegietan atzera bearrari ekiten eutsoen.

Ara sinismenak lortu daikezan gauza bardinbakoak.

# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Marrazki onetan gauza bi dagoz ezkututa. Luma bat eta erloju bat.

Azalpena



Marrazki onetan 10 ezbardintasun dagoz. Nun?



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

Depósito Legal: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO